



**Ebazpena, 2022ko ekainaren 15ekoa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zuzendari beraren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren akatsak zuzentzen dituen. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2022/2023 ikasturterako.**

---

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 2022-2023 ikasturtean ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen. Ondoren, zuzendari beraren ekainaren 7ko Ebazpenaren bidez, behin betiko zerrendako akatsak zuzendu ziren; jarraian, 2022ko ekainaren 10ean, gora jotzeko errekursoaren ondorengo behin betiko zerrenda argitaratu zen, egindako akatsen zuzenketaren ondoriozko aldaketak zein osorik edo zati batean baietsitako gora jotzeko errekursoen ondoriozkoak jasotzen dituen.

Ainara Bereziartua Unanue andrea 2022/2023 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrendan agertzen zen puntu lekin, behar bezala esleitutako puntuazioarekin. Hala ere, gora jotzeko errekursoak ebatzi ondoren argitaratutako behin betiko zerrendan 0,25 puntu esleitu zaizkio.

Hala ere, errakuntza material baten ondorioa denez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ikusita (honako hau dio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak"), Ainara Bereziartua Unanue andrea behin betiko zerrendan sartzea dagokio hiru lurraldeetan (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) puntuazio zuzenari dagokion ordenan, hau da, 1 punturekin espezialitate hauetan:

0202-Fisika eta Kimika

0224-Matematika

0989-Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia

1503-Elikagaien industriako prozesuak

1516- Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak

1517-Irudi pertsonaleko aholkularitza eta prozesuak

1518-Analisi eta Kimika industrialak

1543-Elikagaiak elaboratzeko eragiketak eta tresneria

1556-Laborategia

1557-Prozesu-eragiketak

1566-Prozedura Diagnostiko klinikoak eta ortoprotesikoak

1585-Helduen Hezkuntza ezaguera zientifiko teknologikoaren esparrua.

Beraz,



## XEDATU DUT

**Lehenengoa.-** Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko apirilaren 5eko Ebazpenaren akatsa zuzentzea: ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen 2022/2023 ikasturterako. Zuzenketa hori bera eta ondorioz, 2022ko ekainaren 10ean argitaratutako gora jotzeko errekursoaren ondoren behin betiko zerrendan esleitutako puntuazioa aldatu behar da, Ainara Bereziartua Unanue andrea bere guztizko puntuazioari (puntu 1) dagokion lekuan sartzea behin betiko zerrenda horietan eta goian adierazitako espezialitate bakoitzean.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau [www.hezigunea.euskadi.eus](http://www.hezigunea.euskadi.eus) web orrian Berriak atalean argitaratuko da.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 15a

Langileak Kudeatzeko Zuzendaria  
BLANCA GUERRERO OCEJO